

'San Juan' izango da iparra

**Orain arte egin diren
hiru Pasaia Itsas
Festibaletan Albaolako
aterpean izan da
'San Juan' baleontzia.
Hilaren 14tik 17ra
egingo den
laugarrenaren
arreta foku
nagusiena
izango da · 19-25**

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2026ko MAIATZAREN 8a

***Pasaia Itsas
Festibala
2026***



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

📞 943 634 536 🌐 www.goieko.com

Itsas kulturaren topagune laugarrenez

Pasaia Itsas Festibalaren laugarren ekitaldiak badiako inguruak ondarez, kulturaz eta giroz beteko ditu hilaren 14tik 17ra. 'San Juan' baleontzia, izarra.

MIKEL DEL VAL GARCIA

Gaian da Pasaia Itsas Festibala. Laugarrenez Pasaia badiako kulturaren nazioarteko topagune bihurtuko da. Aurtengoa hilaren 14tik 17ra bitartean izango da, eta ontzi tradizionalak, kultura jarduerak eta publiko guztiei begirako proposamenak bildu dituzte egitarauan. Laugarren edizioko ohorezko gonbidatua Kanada izango da, eta *San Juan* baleontzia uretan bisitatu ahal izango da lehen aldiz.

Xabier Agote Albaolako gidariak aurkezpen ekitaldian esan zuen Kanada ohorezko gonbidatu izatea ez dela kasualitatea: «Atlantikoaren bi aldeetan eraikitako historia partekatu baten aitortza da. Duela ia 500 urte eraiki zen leku berean, Pasaian bertan, *San Juan*

baleontziaren erreplika ikusi eta bisitatu ahal izateak bidaia haien benetako dimentsioa eta Kanadako kostaldeekin ezarri zuten lotura ulertzeko aukera ematen du». Kanadatik 22 lagun etorriko dira Pasaiara, eta beren tradizioak gurera ekarriko dituzte. Besteak beste, urki azaleko kanoa edo kayak inuitak eraikiko dituzte Albaolan, bi lurraldeen arteko lotura atlantikoa indartuz.

San Juan, gainera, bisitagarri izango da festibalean, lehen aldiz bisitatu ahal izango da uretan. Bisitariak itsasontziaren XVI. mendeko testuinguruan murgilduko ditu. *San Juan* ontziarekin lotuta, San Pedroko lonjan Mendi Urruzuno argazkilariaren argazki erakusketa bat bisitatu ahal izango da, zeinak eraikuntzaren bilakaera erakusten

duen. Albaolako AinguraOla ere bisitatu ahal izango da festibalean zehar. Bertan egiten ari dira *San Juan*-aren aingurak.

San Juan baleontziaren arrastoak Kanadako Red Bayn (Labrador, Kanada) topatu zituzten 1978an, Selma Huxley historialariak egindako ikerketei eta Robert Grenierrek zuzendutako Parks Canada Urpeko Arkeologia Zerbitzua-ren kanpainei esker. Milaka pieza aztertu eta katalogatzeari esker, XVI. mendeko kroskoa eta eraikuntza-teknikak zehaztasunez definitu ziren, eta *San Juan*-a nazioarteko erreferente bihurtu zen urpeko arkeologian. Albaolak Parcs Canadak egindako txosten zehatza jaso ondoren ekin zion erreplika zientifikoaren eraikuntzari duela hamabi urte. 2025eko azaroan uretaratu zuten erreplika.

Teo Alberro Pasaiaiko alkate eta Pasaia Itsas Festibaleko presidentek aurkezpenean azaldu zuen festibala Pasaia mundura zabaltzeko leihobat dela, baita mundua Pasaiara ekartzeko ere. Zehaztu zuen aurtengo laugarren ekitaldian urrats bat eman dutela antolakuntzan, KMoa filosofia indartuz, eta bertako eragileei, sortzaileei eta baliabideei lehenetasuna emanez. Jasangarritasuneko protokoloak ere indartu dituzte aurten, badiako eta ingurua erdigunean jarriz. Tokikoari keinu eginez, Pasaiaiko lau barrutietako eragileak presente izango dira aurtengo festibalean. «Pasaia bere aniztasunean du indarra, eta festibal honek hori islatu behar du. Bisitariarentzat bai, baina baita herritarrekin batera eta herritarrentzat sortutako programazioa da gure apustua. Hori da balioa ematen diona festibal honi».

Ontziak

Pasaia Itsas Festibalaren ardatza itsasoan dago, badiakoan. Mundu osotik etorriko diren askotariko barkuek emango diote itsas kulturaren eta ondarearen kolorea laugarren topaguneari. Hilaren 14ko 18:00etan iritsiko dira Pasaiako badiara. Hasiera ekitaldia, gainera, Pasaia Itsas Festibalaren YouTube-ko kanalaren bidez zuzenean jarraitu ahal izango da. Pasaian tamaina, jatorri eta



tipologia ezberdinetako ontzi tradizio-
nalak bilduko dira, «herria itsas onda-
rearen erakusleihu paregabea» bihur-
tuko dute, antolatzaileen arabera. 140
ontzi inguru izango dira festibalean.
Bisitariak milaka espero dira.

Festibalean ontzi horietako batzuk
gertutik edo horietan nabigatuz bisita-
tu ahal izango dira. Antolakuntzak
horien guztien artetik bi ontzi nabar-
mendu ditu: *Étoile du Roy*, hiru mas-
tako fragata kortsarioa; eta *Recouv-
rance*, XIX. mendeko Frantziako itsas
armadako itsasontziaren erreplika. 47
eta 42 metroko luzera dute, hurrenez
hurren. Horien nahiz itsas zeharkaldiak
egin ahal izango diren ontzien fitxak
eta informazioa datozen orrialdeetan
ikus daitezke, egunez eguneko egitarau
zehatzarekin batera.

Uretako programazioaz gain, egita-
raua lurreko jarduerekin osatuko da:
bisitak itsasontzietara, lanbide tradi-
zionalen erakustaldiak, musika, dantza,
antzerkia, gastronomia edo erakuske-
tak. Musikaren arloan, Pedro Pastor
kantautorea edo Bele abeslari donos-
tiarra festibalean izango dira. Bi artis-
ten kontzertuak hilaren 14an izango
dira, estreinako egunean. Horiez gain,
Nakany Kante artista ginearra, Eskorzo
talde granadarra eta Amparanoia talde
madrildarra ere Pasaian izango dira.
Kale animazioa eta jai giroa etenga-
beak izango dira San Pedron eta Doni-
banen batez ere.

Jarduera asko familia girokoak izan-
go dira: haurrentzako tailerrak, urpe-
karitzako bataioak, itsasoari lotutako
hezkuntza proposamenak... ■



Hilaren 14ko 18:00etan sartuko dira ontziak badiara. Imanol Saiz

CIFP - BLAS DE LEZO - LHII



HASIERAKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

AURREMATRIKULAZIO EPEA:
MAIATZAREN 4tik 22ra

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net



Polita da ikustea kulturak egiten dituen zubi lanak»

Hilaren 14tik 17ra bitartean egingo da Pasaia Itsas Festibalaren laugarren ekitaldia, Pasaia badiaren. Aurtengoa indartsu lurreratuko da, uretako zein lehorreko jarduera mordoarekin. Laugarren edizioak bi izen propio izango ditu: Kanada eta *San Juan* baleontzia. Xabier Agote festibaleko zuzendariak aurtengoaren erradiografia egin du HITZA-n.

Hilaren 14an hasiko da Pasaia Itsas Festibalaren laugarren ekitaldia. Nola dator aurtengoa?

Gure laugarren edizioa izango da, eta ediziotik ediziora ikasten ari gara, festibala edertze eta hobetze aldera. Hori da, hain zuzen, edizio honek erakutsiko duena. Itsas festibal baten ezaugarriak nahiko konplexuak dira. Itsas festibal bat uretan gertatzen denarekin oinarritzen da, itsasontziak behar baitira, eta itsasontzi horiek erakartzen dituztelako bisitariak. Erronka handia izaten da itsasontzi horiek ekartzea, festibalak duen erronka handiena da hori. Oraingoan pozik gaude, ontzi de-

XABIER AGOTE AIZPURUA PIF-EN ZUZENDARIA

Pasaia Itsas Festibalak (PIF) herria nazioarteko itsas kulturaren topagune bilakatuko du laugarrenez. Xabier Agotek itsas ondarearen jaialdiaren errepaso egin du.

MIKEL DEL VAL GARCIA

zente etorriko direlako. Gehigarri gisa lehorreko programazioa izango dugu. Bigarren hori ere handitzen eta hobetzen ari da, eta ahalik eta eduki gehien eskaintzen saiatzen gara.

Pasaia nazioarteko itsas kulturaren topagune bilakatuko da laugarrenez. Zer da hori zuentzat?

Itsas historiak eta bere ondareak ematen diguten aukeretako bat nazioartekotasuna da. Hori da itsasoak iraganean izan zuen ezaugarri nagusienetakoa. Gaur egun munduarekin

bat egiteko hamaika modu daude. Gaur egun ez gara itsasontzi batean sartzen, esaterako, Ameriketara joateko. Hegazkinak edo trenak dauzkagu horretarako. Garai hartan, iraganean, itsasoa dena zen, munduarekin bat egiteko modu bakarra. Hor euskaldunak bereizi egin ziren, eta hori da festibalak duen oinarri sendotako bat: euskaldunak iraganean izan zuten nazioarteko sare erraldoia. Oinarri horretan ardatzen dugu festibala. Orain etorriko diren itsasontziak iraganean euskaldunak joaten ziren lekuetatik datoz. Hau ez da gauza espontaneo bat, ibilbide luze bat du, historian zehar egin duguna.

Hona etortzen diren itsasontziak badiari oso bereziak direla, baina mendeak atzera egiten badugu, eguneko kontu bat zen hori. Gaur guretzat belaontzi ederrak diren horiek bere garaian itsasontzi arruntak ziren, eta horiek gaur egun merkataritza ontziak etortzen diren bezala zetozen Pasaia. Ikuspegi hori zabaldu nahi dugu. Gaur egun mendira joaten bagara baserriak ikusten ditugu. Hemen inguruan ditugun baserri batzuk garaiko itxura edo izaera gorde dituzte, eta hori barneratua daukagu, baina itsasoko kontu horiek guztiak galdu egin ziren erabat. Festibalak nahi duena da itsas kultura normalizatzea. Gaur egun etortzen diren itsasontziak harridura sortzen dute jendearengan, espektakulu bat bezala ikusten dira, baina hori egunerokotasun kontu bat zen iraganean. Itsasontziak perspektiba historiko bat ematen digute, gure herriaren eta Pasaia garai bateko izaera naturala berreskuratzen saiatuz.

Bi izen propio daude aurten: Kanada eta San Juan.

Urteak daramatzagu Kanadarekin harremanetan. 2003an, txalupak egiten hasi ginen Albaolan. Ondoren, *Apaizac Obeto* izeneko proiektua egin genuen. Aurten 20 urte bete ditu proiektu horrek. Ordutik harreman estuak izan ditugu Kanadarekin, eta, ondorioz, *San Juan* baleontzia egiten hasi ginen. *San Juan* uretan dago orain, eta bisitagarri egongo da festibalean zehar eta bukatu ondoren ere. Kultur azpiegitura berri bat izango da. Orain arte

rk
rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

aholkularitza asesoria

- Lana
- Kontabilitatea
- Fiskala
- Finken Administrazioa

● Haur eta helduentzat Terapia
Estrategiko Laburra

● Banakako, bikote
eta familia terapia

**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea,
5. bulegoa. Erreterria
www.jakobepsikoterapia.com

kanpotik ikusteko aukera izan dute bisitariek, eta orain barrutik ikusi ahal izango da. Oso interesgarria izango da, kanpotik ikusten ez zena ezagutu ahal izango delako. Hori dela eta, oso egokia iruditu zitzaigun gure ohorezko gonbidatua Kanada izatea, haiekin prestatzen ari baikara Kanadara nabigatzeko proiektua. Harremanak estuak izan badira beti, orain are gehiago. 30 lagun inguruko delegazio bat etorriko da Pasaiara, tartean Lehen Nazioko kideak, hau da, Kanadako jatorrizko biztanleen oinordekoak. Kanadarrek txalupa txiki batzuk eraikiko dituzte festibalean zehar. Txikiak badira ere, nahiko esanguratsuak dira haientzat. Horrekin batera, kultur programazio bat ere ekarriko dute, Kanadari ikuspegi orokor bat emateko.

Polita da ikustea nola kulturak sekulako zubi lanak egiten dituen herrialde ezberdinekin. Uste dut garrantzitsua dela kanadarrekin batera ikuspegi historikoa ematea. Pasaia iraganean Ipar Amerikara eta Artikora joateko portu nagusia izan zen. Pasaia Cabo Cañaveral izan zela diogu, lekurik aurreratua izan baitzen munduarekin konektatzeko. Pasaia oso leku estrategikoa eta bereziki aurreratua izan zen, teknologiaren eta zientziaren bidetik. Ikaragarriak dira Pasaian egiten ziren gauzak, zuten ekintzailtza eta zein aurreratua zegoen Pasaia bera. Uste dut honek perspektiba ematen diola gure iraganari.

Alderdi humanitarioa ere indartu duzue aurten Zaporeak eta Aita Mari Itsas Salbamendu Humanitarioa era-



Imanol Saiz Gomez de Segura

kundeeekin. Hori ere garrantzitsua da, ezta?

Oso garrantzitsua da. Itsasoa eta bizi-tza bera ez dira dena argitasuna. Itsasoa gaur egun tragedia askoren eremua da, eta horrelako bi erakunde gure inguruan ditugu. Niretzat superheroiak dira, izugarria da egiten duten lana, eta egiten duten lan hori ospatu nahi dugu. Tragedia horrek badauka zer ospatu festibalean: bi erakunde horien handitasuna. Guk haiei festibala eskaintzen diegu haien onerako ere izan dadin. Ohi bezala, Zaporeak-eko kideek jaten ematen diete parte hartzen duten marinelei, eta jasotzen den dirua haiei ematen zaie osotasunean. Bi erakundeek, gainera, haien lana ezagutarazteko aukera izango dute festibalean. *Aita Mari* bisitagarri egongo da aurten ere.

Beren produktuak saltzeko aukera ere izango dute. Bi erakundeak pozik daude, eta haiek pozik badaude gu ere bai. Festibalak aukerak sortzeko eremu bat izan behar du inguruko eragileentzako, eta oso garrantzitsua da hori.

Ingurumen inpaktua murriztean ere arreta jarrita duzue.

Jarri behar da, bai. Badakigu jende asko elkartzen den lekuetan albo kalteak egoten direla. Hori zaindu beharreko kontu bat da eta protokoloak dauzkagu kaltea ahalik eta txikiena izateko, eta ahal baldin bada, kalterik ez sortzeko. Gure festibalak formatu *zibilizatua* du, oso familia girokoa baita. Festibalak jende asko erakartzen du, baina giro baketsu eta lasaia. Horrek gu geu ere laguntzen gaitu, ingurumenari begira kalte handirik ez sortzeko. ■

GINÉS ARRANDEGIA
www.pescadosginesehijos.com

ORDUTEGIA:

Asteartetik larunbatera: 9:00 - 14:00

ETXERAKO ZERBITZUA:

Asteartetik ostiralera: 8:00 - 12:00
(Entregak 13:00etatik aurrera)

Esnabide kalea, 18 - PASAI SAN PEDRO

Tel.: 843 93 29 50 - 672 185 377

@pescaderiagines

@PescaderíaGinés

Ondarean sartzeko eta nabigatzeko aukera

Pasaia Itsas Festibalen ezaugarri nagusienetakoa da bertan izango diren ontzi esanguratsuenetara sartu, eta horietako batzuetan nabigatzeko aukera izango dela. Etorriko diren ordezkaritza zabalaren barruan, ondoko fitxetan daudenak dira ostiraletik (hilaren 15etik) igandera bisita daitezkeenak edo zeharkaldiak egiteko prest direnak, *Evangelina* ontziarekin batera. Horietara sartu edo nabigatzeko sarrera erosi behar da. Ontzi guztiak (*Grayhound* izan ezik) San Pedron izango dira ainguratuak; zeharkaldiak, berriz, Donibanen abiatuko dira.

Bestalde, *San Juan* baleontziaren erreplikaren barrunbeak ikusteko aukera ere badago, San Pedron izango da ikusgai. Gainera, *Mater* eta *Aita Mari* barkuak ere ikusteko aukera zabalik da, doan horien kasuan. ■



Bisita edo zeharkaldietarako sarrerak erosteko erabili QR kode hau.



ETOILE DU ROY

- **Ezaugarriak.** 1745ean eraikia, eta 47 metroko luzera du. Jatorrizko portua: Saint Malo (Bretainia).
- **Bisita.** 0-6 adin tartekoak doan; 7-17 tartekoen txartela, 4 euro; 17tik gorakoena, 8 euro.



MORGENSTER

- **Ezaugarriak.** 1919an eraikia, 48 metroko luzera. Jatorrizko portua: Den Helder (Herbehereak).
- **Bisitak.** 0-6 adin tartekoak doan; 7-17koen txartela, 2,5 euro; 17tik gorakoena, 5 euro.



LA RECOUVRANCE

- **Ezaugarriak.** 1991an eraikia, 42 metroko luzera du. Jatorrizko portua: Brest (Bretainia).
- **Bisita eta zeharkaldiak.** 0-6 adinekoak, doan; 7-17koak, 2,5 euro eta 10; 17tik gorakoak, 5 eta 20.



NOTRE DAME DE RUMENGOL

- **Ezaugarriak.** 1945ean eraikia, 21 metrokoa. Jatorrizko portua: Brest (Bretainia).
- **Bisitak eta zeharkaldiak.** 0-6 adin tartekoak doan; 7-17koek 2 eta 10; 17tik gorakoek 4 eta 20.



GRAYHOUND

- **Ezaugarriak.** 1991n eraikia, 35 metroko luzera. Jatorrizko portua: Fowey (Ingalaterra).
- **Bisitak.** 0-6koak doan; 7-17koak, 2 euro; 17tik gorakoak, 4.

zure **taxia!**

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

TXULOTXO

943 52 39 52
Donibane kalea, 71.
PASAI DONIBANE

contacto@restaurantetxulotxo.com

HILAK 14, OSTEGUNA

05:50. San Pedroko arrantzaleen lonjara bisita gidatua. Sarrerak eskuratu behar dira.

18:00. Badiarako itsasontzien sarrera-ekin, Pasaia Itsas Festibala hasiko da.

Arratsaldean zehar. Sastakai txaranga, Alkar Txiki Euskal Dantza Taldea, eta Lesakako trikitilariak San Pedron eta Donibanen izango dira barrutiak girotzen.

20:00. San Pedroko lonjako plazan, Pedro Pastorren kontzertua.

21:30. San Pedroko lonjako plazan, Bereren kontzertua.

HILAK 15, OSTIRALA

Goizean zehar. Porrotx eta Marimoto-sekin goizeko jarduerak badia inguruko ikastetxeetako ikasleentzat.

16:00. San Pedron, Itsas Zaindari mar-txa eta Botapa batukada.

17:00. Donibanen zehar, Oiartzungo Herri Musika Eskola-Soinueneako kideen kontzertu ibiltaria.

19:00. Donibaneko Bizkaia plazan, Eingo taldearekin erromeria.

HILAK 16, LARUNBATA

10:00etatik 14:30era. Donibaneko Bonantzako Kofradia Itsas Etxean, *Izan arrantzale* tailerra 6-12 adin tartekoentzatzat. Itsas eskulanak, esperimenduak eta arrantza tailerra egiteko aukera dago.

12:00. Badian, batelen estropada mistoa Haur eta Kadete mailletako arraunlariekin.

11:00. San Pedroko lonjako plazan, Hon-

darribiko saregileek Honsare proiektua aurkeztuko dute.

11:00. San Pedroko lonjaren gainaldean, Patata Tropikala konpainiaren *Pirata gar-rapata* antzezlan haurrentzat.

12:00. Donibanetik zehar, kantu jira euskal kantu tradizionalekin.

12:00etatik eta 16:00etatik. Donibanetik zehar, Eingo trikitixa eta muxiko eskolakoen kalebuetak.

12:00. Donibaneko Bizkaia plazan, muxikoak.

12:00. San Pedrotik zehar, Iruña Jazz Brass Banden kalejira.

12:30. San Pedron, San Juan baleontzian, *Ziaboga* ikuskizuna.

16:30. San Pedrotik zehar, Albokalteak kalejira erraldoiekin.

Arratsaldean. San Pedrotik zehar, Arando Txiki abesbatzarekin kalebuelta.

18:00. San Pedron, *San Juan* baleontzian, *San Juanetik lehorrera* bertso saioa. Bertsolariak: Amets Arzallus, Alaia Martin eta Aitor Mendiluze. Gaiak Jon Maiak emango dizkie.

20:00. Donibaneko Bizkaia plazan, Makany Kanteren kontzertua.

22:00. Donibaneko Bizkaia plazan, Eskorzo eta Amparanoia taldeen kontzertua.

HILAK 17, IGANDEA

11:00etan eta 16:00etan. Donibaneko Bizkaia plazan, *Izarrekin nabigatzen* astronomia tailerra (aterkiak erosi behar dira, 13 euroan).

12:00. Donibaneko Bizkaia plazan, Patata Tropikala konpainiaren *Pirata gar-rapata* antzezlan haurrentzat.

12:00. San Pedroko lonjako plazan, Ilunbe Akordeoi Orkestraren emanaldia.

13:00. Donibanetik zehar, Pasaia-ko erraldoien kalejira.

14:00. San Pedroko lonjako plazan, Femm Vocal Jazz taldea.

16:00. San Pedroko lonjako plazan, Katalin eta Nenufarrak taldea.

17:00. San Pedrotik zehar, itsas danborrada.

17:30. Donibaneko Bizkaia plazan, *Sardina freskue!* ikuskizuna.

EDUKI IRAUNKORRAK

Erakusketa. Pasaia Itsas Festibala (PIF) bitartean, 11:00etatik 20:00etara eta San Pedroko lonjan, *San Juanen eraikuntza prozesuari begirada bat* argazki erakusketa.

Bisitak. PIF bitartean, 11:00etatik 20:00etara eta Albaolan, *San Juan* itsasoratzeko bidean izeneko bisita egiteko aukera prezio bereziekin.

Photocallak. PIF bitartean, Donibanen, *Batelerak* eta *Pirata* guneeetan argazkiak ateratzeko aukera.

Bataioak. Hilaren 16 eta 17an, 11:00-14:00 eta 16:00-19:00 tarteetan eta Donibaneko Bizkaia plazan, urpekaritzako bataioak.

Akromasta. PIF bitartean, 11:00-14:00 eta 16:00-20:00 tarteetan eta Donibaneko Bizkaia plazan, Akromasta jarduera. Mastetara igotzeko haurrentzako jarduera da.

Artisautza azoka. PIF bitartean, 11:00etatik 20:00etara eta San Pedroko lonjaren goialdeko zabalgunean, artisautza azoka.



Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

ONGI ETORRI!
Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Astebetetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00
Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO



amua
PASAI DONIBANE
arropa denda
f @amuapasaidonibane